



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

**2024ko MAIATZAREN 14an EGINIKO EZ OHIKO ETA PRESAZKO BILKURAREN
AKTA**

Asteasuko Udaletxeko Pleno Aretoan, 2024ko maiatzaren 14an, eguerdiko 14.35etan,

Larraitz Alkorta Cortajarena Funtzioetako Alkatearen Lehendakaritzapean, Maria Pilar Legarra Cortajarena alkate andrea funtzioetan ordezkatzeko maiatzaren 7ko 2024/135 Alkatetza Dekretuarekin bat, behean aipatzen diren Zinegotziak bildu ziren:

ALKATEA FUNTZIOETAN: Larraitz ALKORTA Aizpurua (Asteasu Batuz, AB),

ZINEGOTZIAK: Pedro Maria IZAGIRRE SARASOLA (Asteasu Batuz, AB)
Aitor USANDIZAGA IZAGUIRRE (Asteasu Batuz, AB)
Xabier ROTETA ERKIZIA (Asteasu Batuz, AB)
Iosu ARRIKARTE OTEGUI (Asteasu Batuz, AB)
Iosu OMEÑACA ALCORTA (Asteasu Batuz, AB)
Aitziber EGAÑA CALLEJO (EAJ/PNV)

BITARTEKO IDAZKARIA: Jon Gil Beltza.

Ezin direla etorri aurretik adierazi dute:

Alkate andreak, goian adierazitako orduan, irekitzat ematen du Udal Osoko Bilkura:

GAI ZERREDA:

- 1. Presari buruzko erabakia.**
- 2. 2024ko ekainaren 9an egingo diren EUROPAR LEGEBILTZARREKO HAUTESKUNDEETAKO mahaien kideak izendatzeko zozketa publikoa.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA

Presari buruzko erabakia.

Funtzioetako alkate andreak hitza hartu du. Atzo, 2024/05/13an Udalbatza bertan behera utzi behar izan zen, izan ere, Bitarteko Idazkariak jakinarazi zuen moduan, Europar Legebiltzarrerako Hauteskundeetako mahaien kideak izendatzeko zozketa publikoa egiteko ezinbestekoa den INE (Instituto Nacional de Estadística)-ko aplikazio informatikoak arazo teknikoak eman baitzituen. Bitarteko Idazkariak jakinarazi du gaur goizean goiz aipatu aplikazioaren erabilera berreskuratu ahal izan dela, eta kontuan hartuta legez zozketa maiatzaren 12 eta 15 bitarte egin behar dela, gaur bertan ez ohiko eta presazko deialdia egin dela, A.F.A.ren 79.artikuluari jasotako ohiko deialdia egiteko bi laneguneko epea bete ezin delako.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien ahobatezko onespenerekin, aipatu presari buruzko adierazpena onartu du.

BIGARREN PUNTUA

2024ko ekainaren 9an egingo diren EUOPAR LEGEBILTZARREKO HAUTESKUNDEETAKO mahaien kideak izendatzeko zozketa publikoa.

2024ko ekainaren 9an egingo diren Europar Legebiltzarreko Hauesteskundeetako mahaien kideak izendatzeko zozketa egin da; horretarako, IDACELEC aplikazio informatikoa erabili du Idazkariak, Hauteskude Errolda Bulegoak (OCEK) baliatutakoa.

Zozketaren emaitza inprimatu eta espedientean sartu du Idazkariak.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkate andreak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 14:41 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Bitarteko Idazkariak.

Asteasun, 2024ko maiatzaren 14an.

Bitarteko Idazkariak

Jon Gil Beltza



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Udalbatzarreko akta 2024.05.14

CSV/EKS:

SINA32e00613-3801-42cb-8dec-262bb641df9c